

PRENTSA OHARRA

2016ko Euskadiko lankidetzaren publikoaren analisia

Euskadiren garapenerako lankidetzarekiko konpromisoa Greziaren eta Espainiako estatuaren maila berean kokatzen da

- Lankidetzaren politikak geldirik jarraitzen dute, suspertze-sintomarik gabe, erakundearen konpromiso txikiaren eta borondate politiko faltaren seinale.
- Eusko Jaurlaritzak lankidetzarako duen aurrekontua, zertxobait igo bada ere, ez da Legebiltzarrean onartutakora iristen. Gainera, berriro ere, Lankidetzaren Euskal Legea ez da betetzen. Euskadiko erakundearen artean, Gasteizko Udala da bere aurrekontuaren % 0,7ko konpromisoa betetzen duen bakarra, baita gainditu ere.
- Eurobarometroaren arabera, Europako herritarren % 89 politika publiko honen alde daude, azken urteetako babes handiena. Beraz, argi gelditu da herritarrek gobernu gehienek aurretik doazela, eta azken horiek ez direla gai beren konpromisoak betetzeko.

Gasteiz, 2016ko martxoaren 29a. Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundea, nazioarteko lankidetzaren diharduten 80 GKE biltzen dituen, euskal erakunde publikoek 2016an lankidetzara bideratutako aurrekontuak aztertu ditu, ondorio honetara iritsiz: "Salbuespen batekin, joera kezagarria da, kopuruek bere horretan jarraitzen dutelako, eta larriagoa iruditzen zaiguna, ez da inolako suspertze-sintomarik ikusten. Antza, aurreko urteetako murrizketek eragin zuten geldialdi historikoa ez da gauza puntual eta behin-behinekoa, 2016an ez dugulako bere garaian lortu zen konpromiso maila berreskuratzeko zantzurik sumatu, eta hori kezagarria iruditzen zaigu". *(Erakundearen arabera datuak eranskinean ikusi).*

Eusko Jaurlaritzak 2013an lankidetzaren politikak erabat murriztuz egin zuen atzerapausoaren ondoren, "2016an ere suspertzerik egongo ez dela ikus dezakegu, eta urrun jarraituko dugula % 0,7ak ezarri zuen maila historikotik". Eusko Jaurlaritzak, PSE-EEren laguntzarekin, Legebiltzarrak berak onartu duena baino gutxiago bideratuko du lankidetzara ekitaldi honetan. "Berriro ere, ezbaian jarri da herritarren ordezkari gorenaren Eusko Legebiltzarraren erabaki bat", eranstean dute. Hori horrela, beste urtebetez, 2007ko Lankidetzaren Euskal Legea ez da beteko, zeinaren arabera Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren aurrekontu osoaren % 0,7 bideratu behar zuen 2012an lankidetzara, alde batera utzi gabe Nazio Produktu Gordinarekin % 0,7rantz egin litezkeen urratsak, gainerako euskal administrazio publikoekin koordinatuta.

Gasteizko Udalak bere lankidetzaren politikak berreskuratu ditu, eta bere aurrekontu bateratuaren % 0,87 eginkizun horietara bideratu du. "Udal honen lankidetzaren politikak gorabeherak izan dituzte azken urteetan eta bigarren mailakotzat hartu izan dira. Antza amaitzen hasi den ezegonkortasun hori oztopo izan da denboran jarraipena izango zuen lankidetzaren lan egonkor bat egiteko". Bere aldetik, **Arabako Foru Aldundia**, azken urteetako joerari jarraiki, lankidetzarekin konpromiso txikiarekin duen euskal instituzioa da; baita 2016an ere.

Euskadi, Greziaren eta Espainiako estatuaren pare

Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundeak zehaztu duenez, "2014an, Euskadik bere Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 0,15a bideratu zuen lankidetzara (Garapenerako Laguntza Ofiziala), Espainiako estatuaren eta Greziaren maila bertsuan". "Oraindik oso urrun gaude Nazio Batuek 1970an hartutako konpromisoa betetzetik: hots, BPGren %0,7 lankidetzara bideratzea", gogoratzen dute.

Estatuko erakundeak behin eta berriro zabaltzen ari diren mezuen arabera, 2016a krisitik irteteko urtea izango da. "Hala eta guztiz ere, suspertze hori ez dugu aurrekontuetan nabaritzen, eta erakundeen konpromisoak berriro ere huts egin duela ikus dezakegu". Hortaz, "berriro ere, agerian gelditu da deklarazio publikoak eta herritarren aurrean hartutako konpromisoak ez datozela bat erakundeek egiten dituzten politika publikoekin. Urtero errepikatzen den disfuntzio horren eraginez, txikituz doa baliabide publikoak kudeatzeko hautatzen diren pertsonen sinesgarritasuna".

Europako herritarrak, gobernuen konpromisoen aurretik

Errealitate hori, gainera, ez dator bat 2016ko martxoko Eurobarometroaren emaitzarekin, zeinaren arabera, estatuko biztanleen % 93 garapenerako lankidetzapolitikaren alde dauden. Azterlan berean ikus daitekeenez, Europar Batasuneko biztanleriaren zati handi bat garapenerako funtsen alde dago: europarren % 89 politika publiko honen alde daude, eta azken urteetako babes handiena da.

Gainera, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak Nazioarteko Egoera izenburuarekin 2016ko martxoan egindako azterlanaren arabera, nazioarteko egoera aintzat hartuta pobrezia, gosea munduan eta herrialdeen arteko desberdintasunak mundu mailako hirugarren arazo garrantzitsuenak da elkarriketatutak izan diren pertsonentzat.

"Beraz, argi gelditu da herritarrak gobernu gehienek aurretik doazela, eta azken horiek ez direla gai beren konpromisoak betetzeko", dio Koordinakundeak.

"Lankidetzapolitikak mesedegarriak dira guztiz giza multzo batzuentzat, eta eragin argia dute haien hezkuntzan eta osasunean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean, gai publikoetan parte hartzeko aukeran, ur- eta saneamendusisteman, gosearen aurkako borrokan..., herrialde pobretuetan erabateko pobrezian eta desberdintasunean bizi diren milaka pertsonengan. Horrekin batera, eragina dute halaber euskal herritarren sentsibilizazioa helburu duten ekintzen antolakuntzan, mundu bidezko eta solidarioagoa lortzeko ahaleginean. Krisigaraietan, pertsonak izan behar dute politika guztien lehentasuna, beste era bateko interesen gainetik", amaitzen dute.



ERANSKINA

Erakundeen kudeaketarako bateratu gabeko guztizko aurrekontuen gaineko portzentajeak (lehenengo taula) eta euskal erakunde publiko nagusiek (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Foru Aldundiak eta 3 hiriburu-udalak) garapenerako lankidetzara bideratutako guztizko zenbatekoak, eurotan (bigarren taula) 2008tik 2016ra; aurrekontuetako datuak beti ere.

%	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia	Bilboko Udala	Donostiako Udala	Gasteizko Udala
2008	0,45	0,65	0,64	0,58	0,54	0,45	0,73
2009	0,49	0,56	0,63	0,50	0,57	0,48	0,79
2010	0,49	0,55	0,62	0,49	0,59	0,44	0,76
2011	0,49	0,44	0,50	0,54	0,59	0,44	0,69
2012	0,49	0,15	0,61	0,60	0,52	0,48	0,10
2013	0,23	0,24	0,30	0,52	0,40	0,45	0,42
2014	0,34	0,28	0,31	0,52	0,39	0,47	0,91
2015	0,37	0,28	0,32	0,50	0,41	0,47	0,06
2016	0,39	0,26	0,39	0,48	0,43	0,44	0,98
(*) Aurrekontu bateratua 2016 (%)	-	0,22	0,34	0,41	0,39	0,37	0,87

€

	GUZTIRA	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia	Bilboko Udala	Donostiako Udala	Gasteizko Udala
2008	71.047.692	45.000.000	3.156.259	11.019.000	4.558.648	2.914.208	1.674.709	2.724.869
2009	77.830.453	51.000.000	2.819.505	11.746.260	4.501.399	3.084.451	1.687.709	2.991.130
2010	75.784.524	51.006.137	2.558.981	10.788.624	4.475.934	2.929.790	1.392.244	2.632.814
2011	74.111.277	51.006.100	2.335.436	9.500.932	4.518.757	2.913.389	1.392.244	2.444.419
2012	69.097.852	50.685.165	659.923	9.368.970	4.089.649	2.546.246	1.361.899	386.000
2013	34.244.114	21.232.945	866.880	4.448.970	3.848.120	1.991.962	1.337.819	1.855.237
2014	50.281.379	35.526.830	1.169.380	4.768.970	3.950.843	1.994.295	1.364.204	2.871.061
2015	53.754.024	40.026.830	1.169.380	4.998.357	3.950.843	1.998.204	1.370.847	239.563
2016	61.063.196	43.026.830	1.140.189	6.091.290	3.862.885	2.189.974	1.379.800	3.372.228

(*) Aurrekontu bateratuak erakundearen aurrekontua osoa adierazten du, erakunde eta sozietate publikoak gehituta.

Informazio gehiago:

Jon González de Reparaz

Komunikazioa

Euskadiko GGKEen Koordinakundea

945 28 07 45/685 73 31 72

comunicacion@ongdeuskadi.org

www.ongdeuskadi.org

Euskadiko GGKEen Koordinakundea 1988an sortu zen eta Euskadiko hiru lurralde historikoetan kokatuta dauden eta nazioarteko lankidetzan ari diren garapenerako 80 GKEz osaturik dago. Euskadiko GGKEen Koordinakundeak garapenean diharduten GKEak biltzen ditu. Erakunde horiek jarrera kode baten pean dihardute giza garapen iraunkorra lortzeko genero berdintasuna sustatuz.

www.ongdeuskadi.org

Araba: C. Simone de Beauvoir. C/San Ignacio de Loyola 8, 3º, ofi.1 01001 Gasteiz 945 28 07 45 araba@ongdeuskadi.org

Bizkaia: C/Ronda s/n (frente al nº5), 3ª planta 48005 Bilbao 944 15 03 00 bizkaia@ongdeuskadi.org

Gipuzkoa: C/Iparagiri 8, bajo 20001 Donostia 943 46 35 26 gipuzkoa@ongdeuskadi.org